


ERREPORTAJEA GABONAK ARGAZKITAN · AGENDA "VIA COMICA" IKUSKIZUNA HILAREN 16AN
KIROLA SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA

EL GOIBARRKO ASTEKARIA · 2004ko urtarrilaren 9a/XII. urtea/471. zkia

BARRREN

ASTEKARIA



2003ko KIROL JARDUERA ANTOLAKETA ONENAREN SARIA JASO DU MINTXETA A.T.K

Juan Mugerza Krosa hilaren 11n



Deba kalea, 2 behea · Tel.: 943 748 013 · Faxa: 943 748 135

www.zurichelgoibar.com / zurich-elgoibar@ctv.es



ARANBURU BITXIDENAKO

GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA
GIZONEZKOENTZAT
URREZKO ERLOJUA

Seriea: A
Zenb.: 4.479

Ordezkoa: A seriea 197 zenb.




2. SARIA
EMAKUMEZKOENTZAT
URREZKO ERLOJUA

Seriea: A
Zenb.: 2.255

Ordezkoa: A seriea 4.740 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxes: 943 74 25 35



Urte berria, promesaz betia

Urte zaharra atzean utzi, eta berriari egin behar zaio tokia. 2004a iritsi da gure artera, eta aurrekoa baino hobea izan dadila eskatuko diogu gutxienez. Garai honetan ohikoak izaten dira promesak, jende guztiak egiten ditu urte berrirako promesak: “Erretzeari utziko diot” edo “kirol gehiago egingo dut aurten” bezalako esaldiak entzuten dira guztion ahotan. Bakoitzak bere neurriko promesak eta helburuak finkatzen ditu urte hasieran, baina urtea uste baino bizkorrago amaitzen da sarri, eta horiek guztiak betetzea ez da erraza izaten.

BARRENeK ere egin ditu 2004rako promesak, eta finkatu ditugu gure helburuak. “Ostiraletan kalera ateratzeko lagun berri bat bilatu behar dut, etxeko buzoietan konpainia egingo didan lagun berri bat. Neure burua txukundu eta ordenatu behar dut, bai barrutik eta baita kanpotik ere, gainontzeko kideen aldamenean dotore-dotore azaltzeko. Azkenik, mundu berri batera salto egingo dut, eta espero dut lurrik ez jotzea”.

Urte berria, bizitza berria. Promesak egin, eta bete egin behar dira, eta aldaketa guztiak hoberako izan daitezela. Urte berri on guztioi.

BARREN astekaria



Itxura faltsuak

Igaro dira dagoeneko, itxurakeritan aritzeko unea, ez gerana isladatzeko tartea, irrifar inuxenteen sasoi,... ta berriro blaust!! errealitate gordinarekin topo. Eskuak burura, xahutzerik ez genuena ere xahutu degu, hori bai; betekada ederrak hartu ditugu, nahiz ta oin gerrikoa estutu beharra, batek baino gehiagok dudan izango du nun estutu, gerrialdean edo...Baina hau kontsumismoaren aroa da, kapitalak erlijioari ohostu diona, honek herria eta naturaren arteko loturari ohostu zion moduan, eguzki berriaren etorrera, Eguberriaren benetako itxura faltsutuz.

Zein politikak diren gure kaleak horrenbeste koloreekin, kolore beltza, errealitatearen kolorea, estaltzeko asmoz. Berdin dio estatu laiko baten bizitzeak, gurean 21000 gastatu dituzte udal dirutik, herrian bizi diren beste sinismenak dituzten pertsonak eta sinisten ez dutenak, kontutan hartu gabe, horren polit geratzen da ta.

Hala ere, badira egun hauetan, errealitatetik aldentzerik izan ez dutenak, istripu berri bat euskal preso politiko baten senideena, baina hauek ez dute beste ezer merezi, ezta? Tamalez badira batzuk itxura faltsuekin urte guztian aritzen direnak, eta hauek esaten digutenaren arabera, sartu berri geran urte honetan berdinetan jarraituko dute, duela 25 urteetako iruzurraren parekoa prest baitute, hilotz bera da baina, itxuraldaturik, baina betiko itxura faltsuarekin.

Nestor Fuentes

Kexak	5
Gabonak argazKitan	6
moTZ MotZ.....	8
kiROLak.....	11
aGenda.....	16

Urruzunoren begi ezkutua



Ariel

Azaroaren 16. eguna zen. Eguzkiak gogor jotzen zuen. Posadasen alokatutako kotxeek ez zuten Argentinatik Brasilera pasatzeko baimenik, beraz, mugan bertan utzi behar izan genituen autoak eta autobusean gurutzatu genuen muga. Foz de Iguazun jeitsiko ginen, gertu zegoen gure helmuga. Nik zutik egin nuen bidaia. Autobusa martxan hasi eta gutxira, nere aldamenean lagun ziren bi begi beltz ederrekin egin nuen topo. Hogeitabi urte izango zituen Ariel mutil gazteak. Gure opor bidaiatz galdetu zidan. Nik ere bere bidaiatz galdetu nion eta bizitazun haundiko eta indarrez beteriko laburpen autobiografiko bat egin zidan. Bapatean bere bidaia eta nirea ezberdinak zirela konturatu nintzen. Nirea azorean 11an hasi eta 30ean bukatzen zen; berak berea aldiz 13 urterekin hasi zuen, egunen batean Afrikaraino iristeko helburuarekin. Sarritan hortz zuri zuriz osatutako irrifar zoragarri bat oparitzen zidan. Konturatu ginenerako, Foz de Iguazun geunden eta lagunak autobusetik jeisten hasi zitzaizkidan. Eta ez nuen nahi bezala agurtzeko modurik izan. Justu justuan “ea Etiopiaraino iristen zaren” zioten hitzak zuzendu nizkion atzeko atetik. Eta hori baino gehiago merezi zuen. Horrexegatik gogoratu nahi izan dut bera, Ariel, zulu ezkutu honetan.

Egunkiñe Aranberri

ASTEKARIA BARREN

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GEHIGARRIEN ARDURADUNA Maite Uriarte PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILERAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.130 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855




ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.




ESKERTZA

2003ko abenduaren 26ean, 81 urte zituela hil zen
AGUSTIN ELIZBURU ARRIZABALAGAREN sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2003ko abenduaren 28an, 80 urte zituela hil zen
MARIA GARAGARZA OLASOLOREN sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.






◆ Herritar batek esan digunez, **inguruko herrietako errotondak ikusita, gure herrian daudenek lotsa ematen dute:** “Azkoiti, Zarautz, Bergara eta abarretako errotondak ikusita, Elgoibarkoak lotsagarriak dira, baina Gabon Zahar Feria egunean ikusitakoak ez dauka izenik: errotonda-parking, autoak aparkatzeko sistema berria. Landareen eta loren ordez, kotxe mordo errotondan. Negargarria benetan!”.

◆ Bernardo Ezenarro kaleko bizilagun batek esan digunez, **Madalako etxe berrietako garajetik kotxea ateratzeko ispilu bat behar da:** “Jende askok kotxea bigarren ilaran aparkatzen du ingurune honetan, errekaduak egiteko, eta garajetik irten behar dugunok, ez dugu ezer ikusten. Irtenbidea erraza da, bigarren ilaran aparkatzen dutenei multa jarri, edo behar den moduan ikusten lagunduko digun ispilu bat jarri”.



◆ Emakume batek, **Parrokiako Jaiotza egiten dutenak txalotu nahi ditu:** “Urtero-urtero lan bikaina egiten dute. Ez da erraza horrelako jaiotza prestatzea, eta gainera, urtetik urtera berrikuntzaren bat sartzen saiatzen dira. Gabonak asko janzten dituzte, eta dudarik gabe, txalo bero bat merezi dute. Jarraitu horrela!”.



Gabonak a



Abenduak 19
Parrokiako jaiotza inauguratu
zuen Benentzio parrokoak.



Abenduak 28
Gabon Zahar ferian bertako
produktuekin eta ohiturekin gozatu ahal



Urtarrilak 5
Ekialdean hasitako ibilbidea Plaza
Handian bukatu zuten Erregeek.




argazkitan



Abenduak 24

Euriari eta istripu txiki bati egin behar izan zion aurre



Urtarrilak 5

Herriko haurrek hilara luzeak egin zituzten Erregeei eskutitzak

Mauxitxa baserriak irabazi zuen Gabon Zahar Feriako XXII. Gazta Lehiaketa

Barazki lehiaketan Txillarreko Peio Rubiok 2. saria jaso zuen

Goiko Errota Elkarreak antolatuta, XXII. Gazta Lehiaketa izan zen Gabon Zahar Feria egunean, eta lehengo aldiz, garaipena Elgoibarren gelditu zen. 488 punturekin, Mauxitxa baserria izan zen irabazlea. Jesus Ansola eta bere emazteak 450 euroko saria, garaikurra eta kopa jaso zituzten. Bigarren saria Segurako Karmele Muruak aurkeztutako gaztak jaso zuen 481,5 punturekin, eta hirugarrena, 475 punturekin Mutiloako Kontxi Aldasoro izan zen. 20 partehartzaile izan ziren guztira Gazta Lehiaketan, iaz baino 8 gutxiago.

Barazki Lehiaketan Martuteneko Olatxo baserriko J. Manuel Zabalegi izan zen irabazlea. Bigarren saria Elgoibarko Txillarre baserriko Peio Rubiorentzat izan zen, eta hirugarrena, Markina Xemeingo Alejandro Arrietarentzat. Fruituen atalean,



Mauxitxa baserriko senar-emazteak beste saritu batzuekin

Mutriku aldera joan zen lehenengo saria. Sagar Miña baserriko Antonio Iparragirre izan zen garailea. Bigarren eta hirugarren sariak, Gabiriko Antonia Murgiondo eta Maria Etxezarretarentzat izan ziren.

Azkenik, beste sari batzuk ere banatu ziren Gabon Zahar ferian. Sagar Miña


baserriko Antonio Iparragirrek saltoki onenaren saria jaso zuen, eta Txillarreko Peio Rubiori herriko saltoki onenaren saria eman zioten. Olatxo baserriko Manuel Zabalegik benetakotasun, itxura eta kalitatezko salgai saria jaso zuen, eta Maiorta baserriko Maria Unamunori birlandaturiko mendiak hoberen zaindu dituen baserriaren saria eman zioten.

Goiko Errotari omenaldia

Elgoibarko Udalak Goiko Errota Elkarrea omendu zuen Gabon Zahar Feria egunean, azken urteotan Gazta Lehiaketa antolatzen egindako lanarengatik. Marivi Agirregomezkorta alkateak eman zion oparia Jose Antonio Iriondo Goiko Errotako Elkarteko presidenteari.

2005eko ekainerako bukatzea espero dute Apraizko depuradora

11,8 milioi euroko aurrekontua dauka proiektuak



Foru Aldundiak onartu egin du depuradora egiteko proiektu definitiboa, eta printzipioz 2005. urteko ekainerako amaitzeko asmoa daukate. Proiektua Edar Apraiz enpresen artean egin dute, eta 11,8 milioi euroko aurrekontua dauka.

Apraizko depuradorak Eibar, Elgoibar, Soraluze, Ermua eta Mallabiko zikinkeriak garbituko ditu. Guztira, 95.000 biztanle ingururentzako egingo du lan.

Luis Mari Oyarbide Foru Aldundiko Garapen Diputatuak azaldu duenez, Apraizko depuradora izango da SBR sistema erabiliko duen Espainiako lehenengo depuradora. SBR sistema biologiko berriztagarria da, eta

gainontzeko sistemak baino toki gutxiago behar du. Orain arte, Alemania, Kanada eta Belgikan bakarrik erabiltzen da sistema hau.

Depuradoraren kontrol eraikuntza Apraiz Behekoa baserrian kokatuko da. Baserria berritu egingo dute, baina XV. mendekoak diren fatxadak mantendu egingo dira.

Deba ibaia garbitzeko proiektuaren barnean dauden lau puntu garrantzitsuenen artean kokatzen da Apraizko depuradora. Oraingoz, Debako depuradora bakarrik dago martxan. Apraizkoarekin batera, Arrasaten eta Bergaran beste bi depuradora eraikitzeko asmoa dago.

Miski Elkartearen Gabonetako zozketa

2473 zenbakia izan da saritua Miski Elkartek eginiko Gabonetako zozketan. Saria Bilbao Express Bidai Agentziako eskaparatean jarrita dago. Irabazleak urtarrilaren 16ra arteko epea izango du saria jasotzeko, eta agertzen ez bada, San Anton Egunean, hau da, urtarrilaren 17an beste zozketa bat egingo da.




Aurtengo kanpainan 5000 euro inguru lortzea espero du Gemma Agirregomezkortak. Berak esan digunez, ia 4000 rifa saldu dituzte, eta herritarren laguntzarekin, zifra horretara iritsiko dira.

Martxoaren 2an abiatuko da Gemma Cusco aldera lortutako dirua eramatera. Helburua 100 haur eskolaratzea izango da, eta dirua soberan izanez gero, gaixoak eta behartsuenak lagunduko ditu.

Urtarrilaren 19ra arte egongo da ikusgai Parrokiako jaiotza

Asko dira dagoeneko Parrokiako jaiotza ikusi dutenak, baina oraindik ere, jaiotza ikustera joan ez direnak, datorren urtarrilaren

19ra arte izango dute aukera. Bisita ordutegia: astegunetan arratsaldeko 17:30etik 20:30era eta larunbat eta jaiegunetan 10:30etik 14:30era eta 17:30etik 20:30era.



40m2ko neurria dauka jaiotzak, eta urtero bezala, aurtengoan ere badauka berrikuntzaren bat: bi trontzalari gaineratu dizkiote jaiotzari, eta uraren ibilbidea ere desberdina da. Honetaz gain, ikusleek ziur beste desberdintasun txiki batzuk ere aurkitu dituztela, izan ere, aldaketak txikiak izan arren, ugari izan ditu aurtengo jaiotzak.

Arturo Andradek eginiko brontzezko jaiotza jarri dute Morkaikon

Urtero bezala, Morkaiko Mendizale Elkartek Gabonetako jaiotza jarri du Morkaiko mendian. Aurtengoan, ordea, jaiotza berezia ipini dutela esan daiteke, izan ere, Arturo Andrade eskultore elgoibartarrak eginiko brontzezko jaiotza jarri baitute. Dudarik gabe, Morkaikora igotzeko aitzakia polita izan daiteke Andraderen jaiotza.



Kzguneak ikastaro berriak eskainiko ditu urtarrilean

Urtarrilean Elgoibarko Kzguneak berriro atek irekitzen ditu arratsaldez, bere zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko. Interneten nabigatzen hasteko ikastaroa izango da lehenengoa. 20 orduko iraupena izango du, eta bi data izango dira aukeratzeko: urtarrilaren 7tik 20ra (18:00-20:00) eta urtarrilaren 19tik 30era (16:00-18:00). 50 urtetik gorakoentzat, Nagusiweb ikastaroa eskainiko da. 10 orduko iraupena izango du eta urtarrilaren 26tik 30era eskainiko da (18:00-20:00).

Honetaz gain, mintegi desberdinak eskainiko dira. Besteak beste, "Zure kanala sintonizatu" (urtarrilaren 2an, 17:00-18:00), "Ardoa ezagutu" (urtarrilaren 5ean, 17:00-19:00), "Zure aseguru kontratatu" (urtarrilaren 14an, 16:00-17:00), eta "Outlook Express" (urtarrilaren 15ean, 16:00-18:00) interesatuek Kzgunera joan edo 943 74 88 28 telefonora deitu dezakete.

Udalak 2004ko egutegia argitaratu du

Urtero bezala, Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak egutegi handiak eta txikiak argitaratu eta banatu ditu herrian. Oraingoan, Elgoibarko Kultur Etxearen zuri beltzeko argazki zahar bat izan da aukeratua. 1910 urte inguruan ateratako argazkia da eta Eusko Ikaskuntzaren Argazki Artxiboak lagatakoa da.

Egutegi txikian Udaleko Saitetako telefono zenbakiak eta herriko telefono zenbaki erabilgarrienak ageri dira.

Egutegi txikiak herri osoan zehar buzonetau ditu Udalak, eta egutegi handiak elkarte, eskola, erakunde eta abarretan banatuko ditu. Halere, herritarren batek 2004. urteko egutegi handiak edo txikiak nahi baditu, Kultur Etxean aurki ditzake, Udalaren Euskara Sailean goizeko 8:00etatik 13:00etara.

ONDO PORTATU AL DIRA OLENTZERO ETA ERREGEAK?



AITOR AROSA
13 urte, ikaslea

Bai. Niri Erregeek ekartzen dizkirate opariak. Arrainak eta tortoka bat ekarri dizkirate. Asko gustatzen zaizkit animaliak, eta ondo zainduko ditut.

ANE ASTIAZARAN
9 urte, ikaslea

Bai, etxian eta amamanian jaso ditzut oparixak. Gauza asko ekarri dizkiate, baina gehixen Ken-7 taldian diskua eta radiokaseta gustau jataz.



JOSE MANUEL BENITEZ
8 urte, ikaslea

Bai, Baltasar da nere errege gustukoena eta ondo portau da. Game Boy, futbolina, eta piano txiki bat ekarri dizkit. Eskutitza idatzi nion, eta dana ekarri dia.

AINHITZE ETXEBERRIA
9 urte, ikaslea

Bai, oso ondo portau dia. Kirola eitzeko gauzak ekarri dizkiate. Pilotak, eta eskubaloirako eta futbolerako baloiak. Ikastolarako beste gauza batzuk, eta Ken-7 taldian diskua ere ekarri diate.



GARAZI AIESTA
9 urte, ikaslea

Bai, nik eskatutakuaz aparte, opari sorpresak ere ekarri dizkirate. Pelutxe bat, flauta, belarrirxakuak eta kartak jaso ditzut. Nahixo dot eskatutakua ekartzia.


JULEN ETXEBERRIA
10 urte, ikaslea

Bai, aurtan ez dot eskutitzik idatzi, eta opari danak sorpresa izan dia. Ordenagailurako FIFA 2004 jokoa, *Galdetu* jokoa eta bainujantzia ekarri dizkirate.



ESKERTZA

2003ko abenduaren 30ean, 66 urte zituela hil zen **JOSE LUIS DE LA HORRA CASADO**ren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Eliud Kipchoge 5.000 metrotako munduko txapelduna izango da Mugerza Kroseko izar nagusia

la 500 lasterkarik hartuko dute parte kategoría ezberdinetan

Domeka honetan, hilaren 11n, alebin eta senior maila bitarteko ia 500 atleta arituko dira Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren 61. edizioan. Aurreko urteetako korrikalari kopurua bikoiztea lortu du Mintxeta Atletismo Taldeak. Probatoki bikaina izango da krosa munduko atleta onenentzat. Elgoibarrera etortzen den atleta asko sailkapeneko lehen postuetan izaten da gero Munduko Txapelketan. Iaz adibidez, munduko kros txapeldun gisa iritsi zen Kenenisa Bekele etiopiarra. Lasterketa neke arrastorik erakutsi gabe irabazi ostean, Lausanneko Munduko txapelketan kros motza eta luzea irabazi zituen bigarren urtez jarraian.

Aurten ezingo ditugu Bekeleren zangokada lirainak mirestu, baina Bekeleren ordezkari aparta lortu du antolakuntzak, iaz etiopiarra gainditu zuen keniar bakarra hain zuzen ere. Eliud Kipchoge (1984) du izena eta ez zuen Bekele edonon garaitu, Pariseko Munduko Atletismo Txapelketan baizik, askorentzat mundialeko lasterketarik onena izan zen 5.000 metrotakoan, alegia Kipchogek Bekele eta Hicham El-Guerrouj marokoraren arteko leihan sartu zituen muturrak eta berak eraman zuen urrezko



Antolatzailuek prentsaurrean aurkeztu zuten domeka honetan jokatu den krosa.


domina lasterketa amaiera ahaztezina eta sinestezina eginaz. Iaz junior mailako Munduko txapeldun izan zen eta aurten bigarren izan da Newcastleko krosean Paul Tergaten aurretik. Une honetan IAAFeko sailkapenean hirugarren postuan dago. 2001ean eta 2002an Mugerza Krosa irabazi zuen Abraham Chebii herrikidea izango du arerio nagusienetakoa. Hauekin batera Boniface Kipro ugandarra izango da lasterketa irabazteko faborito nagusienetakoa. 18 urteko atleta gazteak Amorebietako krosa irabazi berri du eta iaz bigarren izan zen junior mailako

munduko txapelketan Kipchogeren atzetik. Haez gain, Leonard Mucheru (Bareim), Mulugeta Wondino (Etiopia) eta Chema Martinez, Juan Carlos de La Ossa eta Juan Carlos Higuero espainiarrak azpimarratu behar dira.

Emakumezkoen lasterketak ere kalitate handiko partehartzaileak izango ditu. Elvan Abeylegesse turkiarra bigarren izan zen iazko Munduko Kros Txapelketan. Merima Denboba etiopiarra izango du arerio nagusia. Turkiarraren atzetik sailkatu zen munduko txapelketan eta Soriako krosa irabazi eta bigarren izan da Laudion aurten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Mintxeta Atletismo Taldea saritu du Mugerza Krosaren antolakuntzan egindako lanagatik

Mintxeta Atletismo Taldeak 2003ko Kirol Jarduera Antolaketa Onenaren Saria eskuratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen duen jaialdian. 2003. urtean Gipuzkoan izan diren talde eta kirolaririk onenak omentzen dira bertan eta kirolari gipuzkoarren ordezkari mardula izan zen. Besteak beste, Reala, Gimnasia Federakundea eta Tayfun Korkut izan ziren sarituak.



Mintxeta Atletismo Taldeari kirol jarduera baten antolaketa onena saritzen

duen Rufino Gorrotxategi saria egokitu zitzaion Juan Mugerza Nazioarteko Krosaren antolakuntzan egindako lanagatik. Saria ematerako orduan, krosaren antzinasuna (61. edizioaren atarian gaude), krosak gizartean duen eragina eta oihartzuna, eta azkenik, parte hartzen duten atleten maila altua hartu ziren kontutan.

Herriko 15 kirolari saritu zituzten Kirol Federatuaren Urteko I. Sarietan

Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sarien lehen edizioak ikusmin handia sortu zuen herritarren artean eta Kultur Etxea txiki geratu zen abenduaren 23an egin zen sari banaketa ekitaldian. Udal Kirol Patronatuak herriko 5 kirolari gazte eta arrakastatsuren agerraldia jendea erakartzeko amu bikaina izan zitekeela pentsatu zuen eta baita bete-betean asmatu ere. Joseba Etxeberria (Athletic), Zuhaitz Gurrutxaga (Erreala), Itziar Gurrutxaga (Athletic), Iñigo Lariz (Ulma-Cegasa) eta Unai Arrieta (C.D. Bidasoa) kirolariek kazetari baten galderei erantzunez bakoitzak bere kirolari ibilbidearen inguruko gora-beherak, eliteko kirolaren alde on eta txarrak eta Elgoibarko kirol federatuaren garrantziaz duten ikuspuntua azaldu zuten, besteak beste. Ikusleek ere izan zuten kirolariei galderaren bat edo beste egiteko aukerarik, baina gutxi izan ziren kazetari sena erakutsi zutenak.

Herrian lan egiten duten taldeen lana eskertzeko asmoz antolatu ditu Udal Kirol Patronatuak Elgoibarko Kirol Federatuaren I Sariak. Herriko talde bakoitzak izan duela bere kirol arloko kirolari onena aukeratzeko ardura izan da sari hauen berezitasun nagusia. Gauzak horrela 15 kirolari izan dira sarituak. Hemendik aurrera, urtero sarituko ditu Udalak kirol ezberdinetan



Sarituak eta Elgoibarko kirolari ezagunek elkarrekin atera zuten argazkia.

protagonistak izan diren kirolari elgoibartarrak eta lehen aldiz izan duen harrera ikusirik datorren urterako sari banaketa lekuz aldatzearen beharra adierazi dute udal arduradunek.

KIROLARI SARITUAK

Futbola: Markel Bergara
Txirrindularitza: Iban Gonzalez
Judoa: Egoitz Mora
Esku Pilota: Haritz Iriondo

Motorrak: Aitor Osoro
Igeriketa: Eneritz Aizpitarte
Areto Futbola: Hector Garrido
Xakea: Mikel Leon
Eskubaloia: Joseba Sagasta
Saskibaloia: Aitor Rementería
Aletismoa: Jose Gurrutxaga
Mendizaletasuna: Aritz Monasterio
Tenisa: Abel Hernandez
Triathloia: Martin Lopez de Larrainzar
Arku Tiraketa: Iñaki Badiola

Pozuelos Boys taldeak irabazi zuen Gabonetako I. Areto Futbol Txapelketa

Pozuelos Boys taldea izan da Udal Kirol Patronatuak eta Elgoibarko Areto Futbol Taldeak estreinako antolatu duten Gabonetako Areto Futbol Txapelketako irabazlea. Kenci areto futbol taldeko egungo eta izandako jokalariek osatzen zuten taldea eta aurkariak nabaritu zuten jokalarion esperientzia eta kalitatea. Finalerdietako partiduan ez zuten gupidarik izan eta 13 eta 4 irabazi zieten Sandis Pub Oñatiko taldeari. Beste finalurrekoan bi talde elgoibartar izan ziren aurrez aurre. Aizkorak



Mendibil taldeak 5 eta 3 irabazi zion Drus taldeari. Pedrusko futbol taldeko jokalariek osatu zuten Drus taldea.

Ikusleek kiroldegiko harmailak bete zituzten finala ikusteko eta partidu polita eskaini zuten bi taldeek. Azkenean Pozuelos Boys taldeak 9 eta 4 irabazi zuen, baina uste baino zailtasun gehiago izan zuten aurkarien joko gogor eta zuzena gaunditzeko. Talde irabazleak 400 euro eta trofeoa jaso zituen, 250 euro eta trofeoa bigarrenak eta 100 euro hirugarrenak (Drus). Pozuelos taldeko Edu Fernandez aukeratu zuten txapelketako jokalaririk onena eta 50 euro eta trofeoa eskuratu zituen.

San Anton eta Euskadiko Lau eta Erdiko Elite Txapelketetako finalak jokatuko dira gaur Ikastolan

Euskadiko Lau eta Erdiko Elite Txapelketa eta San Anton Pilota Txapelketa finalurrekoetara iritsi dira jadanik. Afizionatu mailako 8 pilotaririk onenetarikoak ari dira nor baino nor urtarilaren 2an hasi zen lau eta erdiko txapelketan. Gaur, hilak 9, bigarren finalerdia jokatuko dute Sorarrain eta Bengoetxea pilotariek. Irabazleak lehen edizioko txapeldunordea izango du zain finalean, Ander Antxia, alegia. Iazko finalaren errepikapena izan zenean 22 eta 21 irabazi zion abadiñoarrak Andoni Eguskiza zornotzarrari, bizkaitarren arteko leia bizian. San Anton Pilota Txapelketari dagokionez, pasa den urtarilaren 5ean jokatu ziren lehen finalurrekoak promesa eta nagusien mailan.

Bigarren finalurrekoa jokatuko da gaur 22:00etatik aurrera Ikastolako frontoian.



Promesa mailan Olaetxea eta Merinok Gonzalez eta Arrastoa bikotearen aurka jokatuko dute. Nagusien mailan, berriz, Ubera II eta Bengoetxea eta Diaz eta Zubieta bikoteak izango dira aurrez aurre. Finalak San Anton Egunean, urtarilaren 17an, jokatuko dira 18:00etatik aurrera. ETBko kamarak izango dira bertan.

Cesar Martin eta Aitor Romera izan dira Morkaiko Mendizale Elkartearen Argazki Lehiaketako irabazleak



Ezkerrean Stromboli sumendiaren erupzioa. Eskuinean Patagoniako Torres del Paine.

Cesar Martinek Patagoniako Torres del Paine mendiei ateratako argazkia saritu du epaimahaiak Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako IX. Argazki Lehiaketan. Cesarrek 180 euroko dirusaria irabaziko du argazkiak ateratzen erakutsitako trebeziagatik. Ikuslearen saria, berriz, Aitor Romerak jasoko du. Aitorrek

120 euro jasoko ditu Stromboli irlako (Italia) sumendiari ateratako argazki ikusgarriari esker. Lehiaketan ikusi ahal izan denez, elgoibartarrak ez dira etxean geratzekoak eta mundu guztiko mendi eta txoko ederretan ateratako argazkiak ikusi ziren abenduaren 12tik 21era Kultur Etxean egon zen erakusketan.

EMAITZAK

Futbola

Real Union 0 Haundi 1 (Pref.)
Elgoibar 2 Soraluze 0 (1. erreg.)
Elgoibar 3 Mariæo 1 (Jub.)
Elgoibar 6 Hernani 0 (Inf.)
Elgoibar 1 Gasteiz 1 (Neskak)
Zarautz 1 Elgoibar 1 (Neskak F-8)

Esku pilota

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak A 22 zazpi Iturri 6 (Kad.)
Txapagain 22 Lagunak 9 (Jub.)
Eskoriatza 14 Lagunak 18 (Inf.)
Lagunak 17 Eibar 22 (Nag.)

Areto Futbola

Gala Gar 4 Kenci Elg. 5 (Nazional B)
Lanbroa 4 Axular Lizeoa 2 (2. maila)
Lojantzi 3 Laskorain 1 (Jub.)

Eskubaloia

Basauri 21 Pagoaga Elg. 21 (Kad. neska.)
Tecnomeca Elg. 10 Bidasoa 25 (Kad. mut.)
Basauri 20 Cometel Elg. 12 (Jub. neska.)
Pneumax Elg. 16 Bidasoa 33 (Jub. mut.)
ANTT Softlan 23 Arrasate 23 (Sen. mut.)
Tecnifuelle 29 Basauri 28 (Sen. mut.)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Zapatua, 10

16:30 Haundi Beti Gazte (Pref.)

Esku pilota

Barixakua, 9

22:00 Olaetxea/Merino Gonzalez-Arrastoa (Promesak)

22:45 Sorarrain - Bengoetxea

23:30 Ubera II/Bengoetxea Diaz/Zubieta (Nagusiak)

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

Lana

ESKAERA

- ◆ Emakumea etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01**
- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Fijo edo asteburuetan. ☎ **626 91 49 04**
- ◆ Bolibikiako 35 urteko emakumea etxekolanak egin, edo umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **660 69 53 03**

ESKAINITZA

- ◆ Gozotegian lan egiteko emakumea behar da. ☎ **635 75 89 85**
- ◆ Asteburuan goxoki dendan lan egiteko neska behar da. ☎ **943 75 50 20**
- ◆ Kamareroa behar da, jardunaldi osoz lan egiteko. Urtarrilean haste-ko. ☎ **652 77 82 10/ 652 77 82 60**
- ◆ Kamareroa arduratsua eta tabernako atean lan egiteko mutila behar dira. ☎ **943 74 37 71**
- ◆ Pertsona euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ **660 23 25 33**
- ◆ Esperientziadun kamareroak behar dira asteburuetarako. ☎ **670 25 04 29**
- ◆ Pertsona bat behar da arratsaldez haurrak zaintzeko.. ☎ **627 96 58 45 (Nerea)**
- ◆ Emakume bat behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **943 74 07 73 - 653 70 36 60**

Etxebizitzak

- ◆ 62m2ko apartamentua salgai Ubitar-ten. Eguzkitsua eta berritua. ☎ **696 74 91 59**
- ◆ Logela alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**
- ◆ Neska gazteak pisua hartuko luke alokairuan. ☎ **943 74 32 18 (eguerdi eta gauetan)**
- ◆ Etxea salgai erdigunean. 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta ganbarra. Altzariekin. ☎ **943 74 23 21**
- ◆ Pisua salgai Plaza Txikian. Berritua. 2 logela. Dena kanpora begira. ☎ **646 50 28 66 (arratsaldez)**
- ◆ Pisua salgai Deban. 3 logela, egongela, sukaldea eraberritua, berogailu zentrala, bi ganbara eta bi balkoi. ☎ **619 24 17 08**
- ◆ Etxea salgai San Antolinen. 5. ezk. ☎ **943 74 22 05**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**
- ◆ Pisua salgai Deban. ☎ **619 24 17 08 (Marisol)**

Salerosketak

- ◆ 90m2ko bi ohe, bi mesilla eta armairu handia salgai Santa Ana 22an. ☎ **943 74 24 57**
- ◆ Ezkon soinekoa salgai. Udazkena-negua. Osagarri denak oparitzen dira. Prezioa dosteko. ☎ **646 37 59 14**
- ◆ Spanier Breton txakurrak salgai. Oso merke. ☎ **699 300 325**
- ◆ Olioeko bi berogailu salgai. Ecron Eroski markakoak. 10 elementurekin, kable biltzailea, termostatoa... 70 euro biak. ☎ **943 53 12 86**
- ◆ Arrue kotxe-aulkia salgai. Berria. ☎ **696 60 84 85**
- ◆ Bi eskopeta salgai. Paraleloak. Bata usotarako eta bestea oilagorretarako. ☎ **943 74 00 79**

Bestelakoak

- ◆ Abenduaren 16an, ipuin kontalariaren saioa amaitzean ume batek txamarra beige bat ahaztu zuen liburutegian. Jar-bea liburutegira joan dadila jasotzera.
- ◆ Lau urteko dalmata txakurra oparitzen da. Txipa dauka. ☎ **636 390 808 (Manoli)**

Garajeak

- ◆ Garajea alokatzen da. ☎ **943 74 18 81**
- ◆ Garaje itxia salgai Leku Ederren. 2 auto gordetzeko lekua. ☎ **649 61 31 34**

San Bartolome, 6



Boutique del Pan Okindegia

- Artisau-ogi mota - Tartak ezberdinak

- Opilak - ...

- Pastelak

Mota ezberdinetako tartak enkarguz!

Telf.: 943 741107



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE LAN FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR

Tel.-Faxa: 943 74 18 91



THE HARTFORD
ASEGURUAK

Agurrak



♦ Zorionak **Onintza**, hilaren 7an, 3 urte bete zenituelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



♦ Jadantik bi urte bete dituzulako eta sorgintxo txintxo bat zarelako zorionak **Naia**, gurasoen eta aitaitxa eta amamen partez. Muxu handi bat.



♦ Zorionak **Xabier Gorosabel**, urtarrilaren 8an, 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Aitor eta lbonen partez.



♦ Zorionak **Maria Reyes**, urtarrilaren 6an, 96 urte bete zenituelako. Muxu handi bat alaba, iloba eta birbilobaren partez. Beste urte asko bete ditzazula.



♦ Zorionak **Ane**, urtarrilaren 6an, 6 urte bete zenituelako. Etxekoan partez.



♦ Zorionak **Ane Ipiñari**, urtarrilaren 7an, 4 urte bete zituelako. Gurasoen eta ahizparen partez.



♦ Zorionak **Miriam Osorori**, hilaren 3an, 10 urte bete zituelako. Familiakoen eta batez ere, ahizpa Oihaneren partez.



♦ Zorionak **Aitor Nieblari**, hilaren 4an, bi urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki, anaien partez.



♦ Zorionak **Julene**, abenduaren 28an, 7 urte bete zenituelako. Olaiaren eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Aingeru** eta **Alaitz** Ondo pasatu zuen ezkontza egunean. Goratuko prentsa arrosaren partez.



♦ Zorionak **Adolfo** eta **Teresari**, hilaren 8an eta 12an zuen urtebetetze eguna delako. Ondo pasa, familiakoan partez.

BEKAK

Ikerketa

UNESCOK Japoniako Fondo Fiduziaroaren proiektuaren inguruan finantzaturako UNESCO/Keizo OBUCHI ikerketa beka antolatu ditu ondorengo gaien inguruko ikerketa-lanak bultzatzeko: 'ingurumena', 'kultura arteko elkarrizketa', 'informazioaren eta komunikazioaren teknologiak' eta 'gatazken konponbide baketsuak'. Baldintzak: graduatu ondoko ikertzailea, maisutza edo doktoregoren bat egina eta 40 urte baino gehiago ez izatea. Beken iraupena 3tik 9 hilabetera bitartekoa izango da eta diru laguntza 7.500 dolar amerikar. Epea: urtarrilak 16

Kultura-ondarearen zaharberritzea

Arabarrak doktore tesia kultura-ondarearen ezagutza, zaintza, berreskuratze, zaharberritze eta zabalkundearekin zerikusirik duen arlo batean egin nahi duten graduatu gazteei zuzendutako beka antolatu du. Bekaren helburua doktore-tesi hori Espainiako unibertsitate edo ikerkuntza-zentro batean egiteko eta hura argitaratzeko bide ematea da. Bekaren zenbatekoa 1.000 euro gordin hilean izango da. Baldintzak: homologatutako unibertsitate-titulu baten jabe izatea, ikasketak horiek 1995 eta 2003 bitartean amaitu badira. Epea: urtarrilak 30

IKASTAROAK

E.H.U.

Euskal Herriko Unibertsitateak Espresio-gunea izeneko programaren barruan ikastaro ugari antolatu ditu Donostia eta Bilboko kanpusetan. Musika, zinema, yoga, malabarrak, antzerkia, euskal dantzak, argazkigintza, dantza garaikidea, zinema, etab. Epea: otsailak 13

LEHIAKETAK

Film laburrak

Caja Madridek gai eta genero libreko laburmetraien saria antolatu du edozein adinetako egileei zuzenduta. Lanek 2002tik aurrera eginikoak izan behar dute, VHS, SVHS edo DVDL formatuan eta gehienez ere 30 minutuko iraupenekoak. Bi maila: 30 urtetik beherako zuzendariak eta 30 urtetik gorakoak. Hiru sari maila bakoitzeko, jatorrizko gidoi onenari saria eta 23 urtetik beherako eta 60 urtetik gorako zuzendari onenei sari bana. 21.500 euro saritan. Epea: urtarrilak 19

LANA

Ingurumen-zainen lan-poltsa

Ansoaingo Udalak (Nafarroa) bi udaltzain lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin du. Baldintzak: Batxilergo, Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea eta gizonezkoek gutxienez 1,70 metroko altuera eta emakumezkoek 1,65 metroko altuera izatea. Epea: urtarrilak 16

Kimikaria

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sortzen diren beharren arabera aldi baterako kontratatzeko ingurumen-zainen lan-poltsa osatzeko deialdia. Baldintzak: bigarren mailako nekazaritza arloko Lanbide Heziketako titulua edo natur eta paisaia baliabideen kudeaketan goimailako teknikari titulua, B motako gidabaimena eta Euskararen Gaitasun Agiria izatea. Epea: urtarrilak 12

Kontulariak

Madrilgo Kontuen Epaitegiak, bertan Kontulari Diplomatuen 15 lanpostu betetzeko hautaketa-probak prestatu ditu. Aurkezteko baldintzak: Unibertsitate Diplomatua, Ingeniari Teknikoa, Arkitekto Teknikoa, hirugarren mailako Lanbide Heziketa edo titulu baliokidea edo Lizentziatura bateko lehen hiru urteak osorik gaudituta izatea. Epea: urtarrilak 12

9 BARIXAKUA

22:00 PILOTA PARTIDUAK

Euskadiko Elite mailako lau eta erdiko txapelketa eta San Anton Pilota Txapelketa
Ikastolako frontoian

10 ZAPATUA

19:30 MUGERZA KROSEKO

KORRIKALARIEI ONGI-ETORRIA

Olaizaga kiroldegian

11 DOMEKIA

10:00 61. MUGERZA KROSA

Mintxetan



16 BARIXAKUA

22:15 "VIA COMICA"

ANTZEZLANA

Taldea: Glu Glu produkzioak

Herriko Antzokian



Mutua General de Seguros

ASEGURU MOTA GUZTIAK

Istripu aseguruak
Istripuak erretarekin
Gaixotasun aseguruak
Kotxe aseguruak
Etxe aseguruak

Aurrezte planak
Jubilazio planak
Bizi aseguruak
PYME aseguruak
Denda aseguruak

Diru inbertsioak
- "Vida fondo" (unit link)
- Boltsa
- Inberseguruak (kapital ziurtatuarekin)
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

ENRIKE GARCIAri EGOKITU ZAIO

Jausoro plaza, 1 behea
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain



Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 9 Etxeberria
(Santa Ana kalean)
- 10 Bidasolo
- 11 Bidasolo
- 12 Yudego
- 13 Zabaleta
- 14 Etxeberria
(Errosario kalean)
- 15 Ibañez
- 16 Bidasolo

GAUEZ

- Etxeberria
- Bidasolo
- Bidasolo
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

11 **igandea** Ibarrenea



ELGOIBAR, Herriko Antzokian

"Master and Commander"

9, barixakua: 22:15

10, zapatua: 19:30-22:15

11, domekia: 19:30-22:15

12, astelehena: 22:15

"Super Agente Cody Banks"

11, domekia: 16:30

EIBAR, Unzaga

"El ultimo Samurai"

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:30

11, domekia: 17:00-19:30-22:30

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30-22:15

14, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, Rialto

"Looney tunes"

9, barixakua: 19:30-22:15

10, zapatua: 17:00-19:30-22:15

11, domekia: 17:00-19:30-22:15

12, astelehena: 19:30-22:15

13, martitzena: 19:30

14, eguaztena: 19:30

BARRENez ez du gerta litekeen emanaldien
aldaketen erantzukizunik.

IKASTAROAK

Altzariak zaharberritzea

Eskuz Taldeak altzariak zaharberritzeko ikastaroa eskainiko du urtarriletik aurrera. Astelehen eta ostegunetan izango dira klaseak 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean. Maiatzera arte iraungo du ikastaroak. Izena emateko 943 740801 telefonora (Mertxe) deitu dezakete interesatuek.

Biodantza

Haizea Emakume Taldeak Biodantza ikastaroa antolatu du. Urtarrilean hasiko da eta hiru hilabeteko iraupena izango du. Asteartetan izango da 15:00etatik 17:00etara. Informazio gehiago eta izena emateko Pitxintxu dendara joan.

BATZARRAK

Batzar orokorra La Union Elkarteak

La Union Ehiza eta Arrantza Elkarteak urteko batzar orokorra ospatuko du urtarrilaren 15ean, ostegunetan. Lehen deialdia 20:30ean izango da eta bigarrena 21:00etan. Bazkide guztiei egiten zaie gonbidapena bertara azaltzeko.



"Master and Commander"

Zuzendaria: Peter Weir.

Antzezleak: Russell Crowe, Paul Bettany, James D'Arcy.

1805. urtean gaude, gerrate Napoleonikoetan murgilduta. Acheron untxi frantziarrak eraso gogorra jo dio Britainiar armadaren HMS Surprise itsasuntziari. Tripulazioak galera handiak jasan ditu eta untxia oso kaltetuta geratu da, Jack Aubrey kapitain ausartaren ohorea bezain beste. Mendeku bila munduko itsaso ikusgarri eta arriskutsuenetan barna jarraituko dute beraiena baino untxi handiago eta azkarragoa dena.

ZINEA



A

ste honetako erretratu zaharra **Jose Mari Kortaberriak** laga digu. 1947. urteko irailaren 14an ateratakoa da, hau da, Ipurua futbol zelaia inaguratu zen egunean, alegia. Ordurarte eibartarrek futbol zelairik ez zeukatenez, Elgoibarko Lerun futbol zelai zaharrea jokatzeko zituazten partiduak. Egun honetan 1. Erregional Kategoriako Liga hasten zen Kostako multzoan, eta kasualitatez elgoibartarrei eibartarren kontra jokatzeko tokatu zituzten lehendabiziko partiduan. 0-2 irabazi zuten elgoibartarrek, Eulogio Etxeberriak penaltiz eta Ayestak sartutako golei esker.


Partidu hau irabazi ostean, Etxegina bertsolariak ondorengo koplak idatzi zuela esaten da: "Eibarren diru asko, jendia ugari, baina ezin irabazi elgoibartarrei".

Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri zaizkigun bi emakume hauek: Kopa eskuan daukan neska **Kontxita Santolaya** (†) da, eibartarren banderarekin ageri dena **M^a Karmen Azkue**.

ESKERTZA




2003ko abenduaren 29an, 47 urte zituela hil zen Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren, **IÑAKI ANSOLA BERNEDO**ren emazte, arreba, ilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA



2003ko urtarrilaren 8an, 76 urte zituela hil zen **TXOMIN GABILONDO UNZUETA**ren oroimenez, **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilak 10, arratsaldeko 19:00etan. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



IKUSKIZUN
ESZENIKOA

V
I
A

C
O
M
I
C
A



Urtarrilak 16

Herriko Antzokian

22:15ean

glu glu
PRODUCCIONES

Sarrerak aurrez salgai Kultur Etxean (goizez)



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA





*Euskal Okela, Eusko
Labela duen bakarra
Euskal Okela, la única
con Eusko Label*



EUSKO LABELA DUEN BAKARRA

Euskal Herrian dauden haragi mota eta marka desberdinen artean Euskal Okela bereizten da. Ez dago besterik hau bezain zorrotza denik, 90 parametro baino gehiago kontrolatzen baititu.

Berau da bakarra Euskal Herritik kanpo jaiotako animaliak onartzen ez dituen, eta modu naturalean eta jaki nobleekin soilik elikatzea behartzen duena. Hasieratik amaierara prozesu osoa kontrolatuz

Benetakotasun Etiketa



LA ÚNICA CON EUSKO LABEL

Entre las diferentes carnes y marcas de carne existentes en el País Vasco, destaca Euskal Okela. Ninguna otra es tan exigente, con más de 90 parámetros controlados.

Es la única que no admite animales nacidos fuera del País Vasco y sólo permite alimentarlos de forma natural y con materias nobles.

Y todo ello controlado de principio a fin.

Etiqueta de Autenticidad

**ELGOIBARren,
harategi hauetan
bakarrik:**



**En
ELGOIBAR
sólo en
estas
carnicerías**

**ARMUETA
HARATEGIA**
SAN BARTOLOME, 16
tel.943740640

**A.L. BENITO
HARATEGIA**
URASANDI, 26
tel.943740884

**ZIARDA
HARATEGIA**
ERROSARIO, 10
tel.943740554

**BARRUTIA
HARATEGIA**
SAN FRANTZISKO, 3
tel.943743827